



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

AITOR AGIRRE ALKORTA

**zinegotziak**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2012ko azaroaren 14an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta udalburua izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

542/2012 Dekretua

543/2012 Dekretua

557/2012 Dekretua

564/2012 Dekretua

567/2012 Dekretua

583/2012 Dekretua

584/2012 Dekretua

586/2012 Dekretua

587/2012 Dekretua

588/2012 Dekretua

605/2012 Dekretua

607/2012 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

### **3.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN A.3 PLAZA SORO EREMUKO ALDAKETA.- BEHIN BEHINEKO ONARPENA**

**IKUSIRIK:** LIZARTZAn eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Ikastetxe berriaren ahalbidetzeko, Arau Subsidiarioen A.3 Plaza Soro eremuaren Arau Aldaketaren espedientea.

**IKUSIRIK:** LIZARTZAKo Arau Subsidiarioen Arau Aldaketaren behin behineko onarpenerako agiria.

**KONTUAN HARTURIK:** Arau Subsidiarioen Aldaketaren lehen onarpena eman eta gero, jendaurreko izapidean ez direla alegaziorik aurkeztu.

**KONTUAN HARTURIK:** Sektoreko eskumenak dituzten hurrengo Herri-Administrazioei txostenak eskatu direla: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ur Zerbitzuak, eta Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentu eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuei, azken bi hauek Gipuzkoako Foru Aldundikoak.

**KONTUAN HARTURIK:** Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentu eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuek 2012ko urriak 19 eta 2012ko azaroak 5an txostena luzatu dutela, arau aldaketari inongo oztopo edo eragozpenik jarri gabe.

**KONTUAN HARTURIK:** Agiria behin behingoz onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali behar zaio, txosten loteslea egin dezan, lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokienez.

**KONTUAN HARTURIK** Ekainak 30eko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa2/2006 Legearen 103, 104 eta 105 artikuluek diotena, 90 eta 91. Artikuluarekin batera.

**KONTUAN HARTURIK** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985Legearen 22.2c) eta 47.3II) artikuluek jasotzen dutena

Udalbatza honek, aho-batez

**ERABAKI DU**



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**Lehenago:** Lizartzako Udalak aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioen Arau Aldaketaren Dokumentuaren agiriari, A.3 Plaza Soro Eremuaren Lizartzan eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Ikastetxe berriaren ahalbidetzen duena, behin behineko onarpena ematea.

**Bigarren:** Espedientea, behin behingoz onartzen denetik gehienez 10 egunetako epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzea behar den txostena egin dezan.

#### **4.- KREDITU ALDAKETA – 3/2012**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

#### **PROPOSATZEN DA:**

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
221.422.02.01	Eskolako Jangelako Argi Indarra	400,00	200,00	600,00
221.433.01.01	Kaleko Argi Indarra	12.000,00	3.000,00	15.000,00
227.432.01.01	Agenda 21	6.731,88	9.014,50	15.746,38
<b>GUZTIRA</b>		<b>19.131,88</b>	<b>12.214,50</b>	<b>31.346,38</b>

#### **KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
420.000.00.99	Bestelako transferentziak	12.365,64	12.214,50	24.580,14
<b>GUZTIRA</b>		<b>12.365,64</b>	<b>12.214,50</b>	<b>24.580,14</b>



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### **5.- GARRAIO PUBLIKORAKO PROPOSAMENA**

Garraio Publikorako proposamen berria jaso da, iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Proposamena aztertu da eta iradokizunak jasotzeko, jendaurrean jartzea onartu da.

### **6.- BARATZA EKOLOGIKOEN PARKEA**

Lizartzako Baratze Ekologikoen programa da zoru eta uren erabileraren eta tokiko espezieak babesteko planifikazio eta kudeaketa, eta formazio eta ingurumen kontzientziario tresna bat. Horretarako hortikultura ekologia sustatu nahi du hezkuntzaren esparruan, praktika jasangarri egokirako baratzak, aisialdirako ortuak eta lursail banku txikiak sortuz.

Aisialdiko hortikultura hiriko biztanle askoren jarduera ludiko gero eta ugariagoa da, batik bat adinekoen kasuan; hori dela eta, Lizartzako populazioak erabiltzen dituen baratz txikia sustatzea proposatzen da, familia-kontsumoari zuzendutako produktuak lortzeko.

Udalaren konpromisoa datza programarako sarbidea erraztean interesdun guztientzat; eta lursailak eskuratzeari gehitu behar zaio ustiapenerako beharrezko zerbitzuetarako sarbidea. Zerbitzuaren erabiltzaileen aldetik, errespetatu beharra dago ingurumenari dagokion araudia, zentzua ematen baitiote programari eta auzoko komunitate baten barruan garatu beharreko ustiapenak direnez gero, ezinbestekoa da erabiltzaileen eskubide eta betebeharren araudi hau erabiltzea jardunbidea arautzeko.

Guzti hori martxan jarri aurretik, Baratza Ekologikoen Parkean parte hartzeko zenbat jende egon liteken interesaturik jakin behar da.

Horretarako kalean iragarkia zabaltzea erabaki da.

### **7.- “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA” - ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Azaroaren 25 dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna” aitortutako eguna dela-eta, Lizartzako Udalak indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa ..), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako: sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetako diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.

Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezkarria dela.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.

Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonak pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikitzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.

Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rola eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

Guzti hori kontutan hartuta, Lizartzako Udala



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

- Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.
- Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere.
- Gonbit egiten die herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

**8.- BESTELAKOAK**

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, ilunabarreko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK  
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia